



OXFORD

EGOITZA-IKASTAROA

Gomendatutako adina: 14-17 urte.

Datak: uztailaren 3tik

24ra Iraupena: 3 aste

Irteera Bilbotik.

Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak



HIRIA

Oxford, unibertsitate-hirietan nagusia, XIII. mendeaz geroztik munduko ikasleak eta ikas-zaleak erakartzen ditu. Bere lehenengo Collegea, University College delakoa, 1249koa da, eta gaur egun 39 College baino gehiago ditu. Hiriak 120.000 biztanle inguru ditu eta London ipar-ekialdean dago, hiriburutik 100 km-ra.



ESKOLA

Ruskin College, Headingtonen dago, hiriaren erditik 15 minutura

garraio publikoan, inguru lasai eta seguruan. Eskolak 10 gela moderno eta handi ditu, ordenagailu-gelak, liburutegia, kafetegia, telebista duen gela bat, BBQ eta piknik eremua... kirol-instalazioak gertu daude: teniserakoak, saskibaloirakoak, futbolerakoak...



IKASTAROAK, JARDUERAK ETA IBILALDIAK

.- **Astean 15 orduz ematen da ingelesa**, asteleheneretik ostiralera 9:30etik 12:45era. Gehienez 15 ikasle, duten mailaren arabera banatuta, lehenengo egunean egiten zaien testaren arabera.

.- **Kultura eta kirol arloko jarduera ugari** arratsaldero eta astean lau gautan. Eskolako monitoreekin egongo dira beti.

Jarduera hauetan sartzen dira futbola, saskibaloia, tenisa, boloak... eskulanak, nazioarteko bazkariko festa, filma... **gaueko jarduerak** ere bai, hala nola, diskoteka, jolasak, misterio-jolasak...

.- **Egun erdiko ibilaldi bat eta egun osoko beste bat aste bakoitzean:** Ashmolean museora eta Pitt Rivers, Christchurch, Magdalen College eta New College, ibaian ibilaldia, Radcliffe... London, Cambridge, Blenheim Palace and Woodstock, Stratford eta Costswolds...etab.



OSTATUA EGOITZA

Egoitza campusean bertan dago, ikasleak banako logela izango du eta bainugela partekatuko du. Mantenu osoa.

